



ALTSASUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ALSASUA

**GIZONEZKOEN ETA EMAKUZMEZKOEN ARTEKO
BERDINTASUNERAKO II. JARDUERA PLANA
2016-2019**



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

AURKIBIDEA

I. AGIRIA: PLANGINTZAREN TESTUINGURUA

1. SARRERA	3
2. I. BERDINTASUN PLANAREN EBALUAZIO-TXOSTENAREN LABURPENA	4
2.1. Lehenengo planean bildutako ekintzen burutze-maila	5
2.2. Burutu gabeko ekintzak (letra lodiz daude honako agiri honetan aurkezten den proposamenean onartzen direnak)	6
2.3. Ebaluazio-agirian aurkeztu ziren proposamenak (letra lodiz daude honako proposamen honetan onartzen direnak)	10
3. PLANGINTZAREN DISEINUA	15
4. HERRITARREK PROPOSAMENEAN ESKU HARTZEKO PROZESUA	20

II. AGIRIA: 2015-2019 PLANGINTZA ESTRATEGIKOA

5. ZER ARAUDIRI ERANTZUTEN DIO	25
6. UDALAREN JARDUN-IRIZPIDEAK	28
7. NEURRIEN PROPOSAMENA	29
7.1. Proposatutako neurrien laburpen-taula	37
8. NEURRIEN FITXA DESKRIBATZAILEAK	38
1. ERANSKINA: 21. NEURRIAREN GARAPENA	63
2. ERANSKINA: NEURRIEN TAULA PROGRAMAKA	66
3. ERANSKINA: NEURRIEN TAULA URTEKA	67



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

1. SARRERA

Altsasuko udalak, 2008ko apirilaren 7ko osoko bilkuran, honako hau onartu zuen: **Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Udalaren I. Jarduera Plana 2008-2011**; plana politika normalizatuko planteamendu eta erakundeek eta gizarteak esku hartzeko sistema egonkor gisa sortu zen, eta gizonen eta emakumeen artean benetako berdintasuna lortzeko asmoa zuen.

Planaren azken xedea gizarte altsasuarra da, baina, horretarako, bi esku-hartze esparru planteatzen dira: gizartea bera eta udal-administrazioa.

Ordurako, udalak bazituen berdintasunari dagokionez jardunbide eta konpromiso handia, baina beharrezkoa zen estrategia-marko bat izatea, alor horretan egiten zen jardunari koherentzia eta egonkortasuna emateko.

2012an, plan horren **ebaluazioa** egin zen eta, etengabe hobetzeko prozesu guztietan bezala, honako agiri honetan aurkezten den proposamena definitzeko abiapuntua da. Horregatik, agiri honen lehen zatian, ebaluazio horrek agerian jarri zuena laburbiltzen da.

Azkenik, honako sarrera honetan adierazi behar da, legealdiko jarduera-proposamena egiteko, honako dokumentu honi jarraitu zaiola: **Genero-berdintasuna Nafarroako toki entitateetan: udaletako berdintasun alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea eraginkortasunez komunikatzeko plana**; aurrerantzean "Ibilbidea". 2014. urteko dokumentu hori Nafarroako berdintasun-eragileek adostu eta egin zuten, tokiko berdintasun-eragileak gaitzeko programaren baitan; programa hori Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak (NFBI) sustatu zuen, eta dokumentua NFBIak eta baita Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) ere onartu zuten.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

2. I. BERDINTASUN PLANAREN EBALUAZIO-TXOSTENAREN LABURPENA

2012ko otsailean, berdintasun-planaren ebaluazio-txostena aurkeztu zen, honako helburu hauekin:

- 2008-2011 berdintasun-plana Altsasun zer neurritan bete zen zehaztea.
- Udalerriko gizarte-eragileei eta udaleko alor guztiei hurbilketa egitea, emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortze aldera hobetu beharreko alderdiak planteatzeko.
- II. berdintasun-plan bat egiteko euskarri izatea.

Ebaluazioa kuantitatiboki zein kualitatiboki egin zen. Alde kuantitatiborako, barne-agiriekin (adibidez, urteko plangintzak eta memoriak) eta fitxa teknikoekin lan egin zen, baita udalaren beste agiri eta araudiekin ere; analisi kualitatiboa deitutako taldeetatik jasotako informazioan oinarritu zen (agiriak partaidetza baxua jasotzen du: 60 pertsona deitu, eta 16 agertu ziren, 13 emakumezkoak eta 3 gizonezkoak).


Aurretik esan den bezala, ebaluazioa hurrengo jardueretarako abiapuntu izan behar da eta, horregatik, jarraian biltzen da:

- 2.1. I. planean bildutako ekintzak betetzea
- 2.2. Burutu gabeko ekintzak (letra lodiz daude honako agiri honetan aurkezten den proposamenean onartzen direnak)
- 2.3. Ebaluazio-agirian aurkeztu ziren proposamenak (letra lodiz daude honako proposamen honetan onartzen direnak)



2.1. I. planean bildutako ekintzen burutze-maila

BERDINTASUN-PLANAREN ILDO ESTRATEGIKOAK	BURUTUTAKO EKINTZAK	ERDIZKA BURUTUTAKO EKINTZAK	EGIN GABEKO EKINTZAK	
1. Udal-administrazioan, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren printzipioa zeharka integratzea	16	7		
2. Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea eta desagerraraztea	17	4	8	
3. Emakumeen erabateko integrazioa eta garapen laborala eta profesionala	9	3	8	
4. Kulturaren, ezagutzaren eta informazioaren eraikuntza ez-sexista	12	2		
5. Emakumeen erabateko hiritartasuna: erabakiak hartzean eta baliabideez gozatzetan esku hartzea	8	2	6	
GUZTIRA	62 (% 60,78)	16 (% 15,68)	24 (% 23,52)	102 (% 100)



BURUTUTAKO EKINTZAK % 61
 ERDIZKA BURUTUTAKOAK % 16
 BURUTU GABEKOAK % 23



Altsasuko Udala
 Ayuntamiento de Alsasua
 I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
 FAX 948 56 38 55
 www.alsasu.net
 alsasu@alsasu.net
 ✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

2.2. Burutu gabeko ekintzak (letra lodiz daude proposamen berrian biltzen direnak)

BURUTU GABEKO EKINTZAK	
2.2 PROGRAMA Aurrea hartzeko estrategiak garatzea	2.2 Emakumeen aurkako genero-indarkeriari aurrea hartzeari buruzko modulu espezifikoak eskaintzea helduen eskolari
	2.4 Emakume taldeen arteko topaketak garatzea, emakumeen aurkako genero-indarkeriari aurrea hartzearekin lotutako ikasketak eta bizipenak partekatzeko
2.3 PROGRAMA Kalitatezko zerbitzu egonkor bat bermatzea, emakumeen aurkako indarkeria-egoeretan esku hartzeko	3.1 Koordinazio-talde bat eratzea sustatzea, udalerrian lan egiten duten eta emakumeen aurkako indarkerian esku hartzen duten erakunde guztien artekoa, lehen mailako arreta eta segimendua eraginkorragoa izateko; talde horrek udalari berri emango dio eta hobetzeko balizko neurriak proposatuko ditu
	3.2 Altsasurako, emakumeen aurkako indarkeria jasan duten emakumeak artatzeko prozedura diseinatzea, Nafarroako Gobernuaren Jarduera Integraleko Protokoloarekin lotuta
	3.4 Indarkeria jasaten duten emakumeak artatzeko erabiltzen diren baliabideen informazioa biltzeko irizpideak, tresnak eta aldagaiak bateratzea.
	3.5 Emakumeei emandako laguntza ebaluatzeko adierazleak diseinatzea eta urteko txostena egitea, beharrezko hobekuntzak egiteko
	3.6 Protokolo espezifiko bat egitea, kasuak goiz hautemateko, haiei heltzeko eta segimendua egiteko jarraibideak izateko eta profesionalen ekintzak egituratzeko
3.7 Prestakuntza-ekintzak antolatzea zerbitzu horiek emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoak sakonago	



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altasu.net

altasu@altasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

	ezagutzeko eta fenomenoari heltzeko estrategietan sakontzeko
	<i>3.4 eta 3.7 ez ditugu gure gain hartzen NFBIren eskumena direlako</i>
3.1 PROGRAMA Informazioa eta prestakuntza, lan- merkatuan erabateko integrazioa izateko	1.5 Formatzailleen eta hezitzaileen profesional-sarea sustatzea, baita lanbidearekin lotutako zerbitzuen edo eragileena ere
	1.7 Erakunde autonomikoekin lankidetzan aritzea, emakumeak enplegu- eta autoenplegu-hobi berriak osatzen dituzten lanbide eta enpleguetarako prestatzeko
	1.8 Prestakuntzarako eta lanerako ekintza-programa espezifikoak antolatzea, gaitasun pertsonalak eta gizartekoak garatzean laguntzeko eta, hala, emakumeek lana aktiboki bilatzeko lidergoa izateko
	<i>Ekintza horiek bultzatzeko zentzuan hartzen dira, eskudun diren organismoek bete ditzaten eskatzeko; izan ere, udalak ez dauka horiek egiteko eskumenik ezta aurrekonturik ere</i>
3.2 PROGRAMA Emakumeak lan- munduan txeratzeta eta emakumeen lan- baldintzak hobetzea	2.4 Enpresaburuak sentsibilizatzea haien enpresetan emakumeak kontratatzeari dagokionez
	2.5 Udaleko enpresen datu-baseetan sexuaren aldagaia sartzea, herriko emakumeen industria-ehuna ezagutzeko
	2.6 Emakume enpresarietara udalak duen eta interesatzen zaien informazioa ematea
	2.7 Enpresen jardun egokiak hedatzea emakumeak kontratatzeari dagokionez
	2.8 Lanari, prestakuntzari eta lan-harremanei dagokienez, emakumeen aurkako bereizkeria agerian uzten duten datuak biltzea eta zabaltzea, baita ekintza positiboak ere, bereizkeria horiek zuzentzeko garatu beharreko neurri gisa
	<i>Ekintza horiek enpresentzako aholkularitza-proposamenean biltzen dira</i>



Altsasuko Udala
 Ayuntamiento de Alsasua
 I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
 FAX 948 56 38 55
 www.altsasu.net
 altsasu@altsasu.net
 ✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

<p>4.1 PROGRAMA Hezkidetzeta eta orientazio ez-sexista hezkuntzaren alor guztietan</p>	<p>1.7 Berdintasunerako udal-zerbitzuaren eta unibertsitatearen arteko lankidetzeta mantentzea, ikasleak praktketan hezteko</p>
<p>4.2 PROGRAMA Kultura-erakuntza ez-sexista</p>	<p>2.2 Zerbitzu bat ematea, hedabideetan, publizitatea eta teknologia berrietan ezkutuan edo zeharka agertzen diren estereotipo sexisten eta bereizkerien salaketak biltzeko. Salaketa horiek dagozkien erakundeei helaraztea</p>
<p>5.1 PROGRAMA Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako udal-araudia</p>	<p>1.2 Barne-arautegi bat idaztea eta onartzea, ekintzak eta prozedurak arautzeko eta, hala, udal-administrazioan emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioa sartzeko beharra betetzeko</p> <p style="text-align: center;"><i>Ekintza hori biltzen da berdintasunerako ordenantza bat egitea proposatzean</i></p>
<p>5.2 PROGRAMA Emakumeek erabateko hiritarrak izateko baldintzak</p>	<p>2.7 Memoria historikoa berreskuratzeko sustatzen diren lan guztietan genero-irizpideak sartzea</p> <p style="text-align: center;"><i>Ekintza hori berdintasunerako ordenantzari onartu beharreko eduki gisa biltzen da</i></p>
<p>5.3 PROGRAMA Emakumeek gizarte, politikan, ekonomian eta kulturaren esku hartzea</p>	<p>3.1 Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako udal-kontseilua eratzea</p> <p>3.2 Emakumeak bereziki sentsibilizatzea eta prestatzea gizarte-lidergorako, politikorako, kulturalerako eta ekonomikorako, eta hausnartzeko foroak sustatzea emakumeek esparru guztietan duten partaidetzaren inguruan</p> <p>3.3 Gizartea, erakunde publikoak, gizarte-antolakuntzak eta politikoak sentsibilizatzea bi sexuen parekidetasun demokratikoa txertatzearen beharraz, ordezkariak publikoan zein pribatuan</p>



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

3.4 Hausnartzeko eta eztabaidatzeko foroak eta jardunaldiak egitea ardura politikoa, gizartekoa, ekonomikoa edo kulturala duten emakumeekin honako hauen inguruan: genero-berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren inguruan, baita emakumeen partaidetza eta lidergo publikoan dirauten oztopoen inguruan ere

Horrela formulatuta, ez da 3.1 ekintza onartzen, uste baita egungo errealitatera parte hartzeko beste modu batzuk hobe egokitzen direla



2.3. Ebaluazioarekin batera aurkeztutako proposamenak (letra lodiz proposamen berriari onartutakoak)

PLANTEATUTAKO HOBEKUNTZAK	
BERDINTASUN PLAN BERRIA	<p>Garrantzitsua izango da egiten den plana egoera ekonomiko berrira egokitzea, eta, horretarako, itxura batean lortutako esparruak indartzea eta alderdi jakin batzuk sakon lantzea, asko gainera landu beharrean, baliabideak optimizatzeko</p> <p>Hurrengo plana garatzea, denboran eta esparru bakoitzetik gertuago dauden plangintzekin. Planak baliozkotasuna dauka oraindik ere. Legealdiko plan estrategikoa egin liteke, garatzen hasi diren planaren ildo nagusietan oinarrituta</p>
1. ildo estrategikoa Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren printzipioa udal-administrazioan zeharka integratzea	<ul style="list-style-type: none">▪ ‘Aukera-berdintasun’ kontzeptua ezabatu, eta ‘Emakumeen eta gizonen berdintasun’ kontzeptuarekin ordeztu.▪ Funtsezkoa da legealdi honetan ekintzen hedapenean / partaidetzan arreta jartzea, herritarrek horiek ezagutzeko, proposatzeko eta udalarekin batera ekiteko, eragina handiagoa izan dadin. Horretarako, planaren segimendua egiteko talde bat eratzea ona izango litzateke, han, Emakumearen Batzordeaz gain, emakume gakoak (era indibidualean) egon eta lan hori beren esparruetara helarazteko (osasunekoak, hezkuntzakoak, kultura-edo kirol-elkarteetakoak, gazteetakoak, lanekoak, immigranteetakoak, helduetakoak)▪ Teknikariek lan handia hartuta, sekulako ahalegina egin da udalaren jarduna arautzeko. Orain, jardun hori egituratu behar da: lan indibidualak ez izateko, baizik eta elkarrekin jarduteko ildoak:<ul style="list-style-type: none">○ Egindako lanak garatzea eta praktikara eramatea, gauzatzea. Horretarako, agian, batzorde guztiek erabaki politikoak hartu beharko dituzte○ Jardun-ildoak lehenestea. Adibidez, lehen urtean, hizkera ez-sexista erabiltzeko ordenantza abian jartzea (eta herriko erakundeei jakinaraztea udaletik dirua edo baliabideak jasotzen dituzten neurrian). Bigarren urtean, esparru guztien jardura-planak egitea, haietan, genero-irizpideak sartzea (planifikazioak emakumei eta gizonei era berezian nola eragingo dien jakiteko), baita bete diren jakiteko irizpideak ere○ Emakumeen Bilgunea, berdintasun-batzordea, prozesu osoaren ‘autoritate’ gisa onartu behar da,



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altasu.net

altasu@altasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

	<p>baita aholkulari gisa ere. Gainerako batzordeen lanaren segimendua egiteko ardura eman behar zaio, haiekin batera jarduteko gai izan dadin.</p> <ul style="list-style-type: none">▪ Gainerako zerbitzuei dagokienez, legealdian zehar azter daiteke hobe molda eta eskain daitezkeen, herritarren lan- eta familia-bizitza bateragarriagoak egiten saiatzeko▪ Udal-langileen benetako azterketa egitea generoaren ikuspegitik eta hitzarmenik gabeko ordainketa-sistemarekin zerikusia duen guztia berrikustea eta moldatzea (osagarriak)▪ Emakumearen Batzordea sortzea▪ Berdintasun-gaian Udal-jarduna arautzeko Ordenantza garatzea▪ Esparru guztiak gehiago konprometitzea lortzea▪ Ongi egiten dena agerian jartzea: jardunbide egokiak▪ Erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez onartutako printzipioen dekalogoia egitea, aldaketa politikoak alde batera utzita▪ Legealdi berri bakoitzean, langile politiko berriak prestatu beharra arauz sartzea▪ Sartzen diren udal-langile berriak berdintasunean derrigor gaitu beharra txertatzea▪ Berdintasunean eta zeharkakotasunean gaitzeko egungo ildo mantentzea, langileak joatera behartuz eta erraztasunak emanez▪ Udal-esparru guztien memoriak egitea sexuaren arabera xehatuta▪ Oro har, jasotako prestakuntza hobe aprobetxatzea. Udal-politikek gehiago itzuli behar dute▪ Emakumearen Batzordea mantentzea▪ Esparru guztiei jardunbide egokien zerrenda bat pasatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako neurriak aplikatzeko▪ ANIMSari, Udalaren webgunea egiten duen enpresari, hizkera ez-sexista erabiltzeko eskatzea, udalak kontratatutako enpresek hizkera barneratzailea erabiltzeko ordenantzak adierazten duen moduan▪ Indarrean dauden prozeduren berrikuspen sistematikoa genero ikuspegitik▪ Udal-administrazioan erabilera normalizatua duten agiri guztiak berrikustea, hizkera sexista ezabatzeko▪ Lan-mahai koordinatuak egitea: <i>feedbacka</i> izateko, hasieran eta amaieran lan-mahaiak dituen plangintza komuneko proiektu batean sentitzea▪ Lan birtualerako sareak sortzea
--	--



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altasu.net

altasu@altasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

	<ul style="list-style-type: none">▪ Informazioa trukatzeko sareak sortzea, inplikaturako langileen artean▪ Egungo funtzionatzeko egitura aldatzea: ez teknika eta zerbitzu bakoitza, baizik eta zerbitzu guztiak koordinatzaile gisa harekin eraginez▪ Planari segimendua egiteko batzordea garatzea▪ Eredugarriak diren emakume gakoan lan-talde egonkor bat osatzea, erakundearen eta herritarren arteko lotura izateko▪ Udal-aldizkari bat egitea herritarrei Emakumeen Bilgunea ezagutzera emateko▪ Gai horretan udalari egin beharreko kritika bat da herriak ez duela ezagutzen. Gai horretan, herriko kulturen edo kirolean murgildutako taldeak izan behar dira. Zergatik ez dute Altsasuko kirol-taldeek kanpainarik egiten? Edo musika-eskolak? Edo tabernek? Edo Gaztetxeak?
<p>2. ildo estrategikoa:</p> <p>Emakumeen aurkako indarkeriari aurre hartzea eta desagerraraztea</p>	<ul style="list-style-type: none">▪ Kontuan izan beharreko praktika ona da Antsoaingo jarduera-protokoloa▪ Gizarte-zerbitzuen berregituratzea Nafarroako Gobernuak Gizarte-zerbitzuetarako Zentroak eratzeari lotuta egin behar da; haietan, indarkeria jasan duten emakumeentzako arreta integraleko zentroak ezartzen dira eta haien lana berdintasun-sailarekin batera egiten da▪ Aurrekontuak egitea eta ezartzea genero-ikuspegiarekin▪ Informazio-kanpainak egiten jarraitzea <i>emakumearen aurkako indarkeria</i> kontzeptuaren inguruan▪ Lege-aholkularitza ekintza positibo bezala mantentzea, baliabideen eskuragarritasuna eta indarkeriari aurre hartzea ahalbidetzen baitu▪ Elkarlanean jarraitzea beste gizarte-erakunde eta eta -antolakuntzekin, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko kanpainatan, jardunaldietan, foroetan, eta abarretan▪ Udalak kudeatutako baliabideetara sarbide zuzena (gizarte-zerbitzuak, haurtzaindegia, jarduerak edo lan-eskaintzak)▪ Txantiloia orokor bat izatea estatistika-erregistro kuantitatibo eta kualitatiborako▪ Aurrea hartzeko eta hezteko esparruan arreta berezia ipintzea▪ Begiraleen profilak berdintasunean trebakuntza duela bermatzea▪ Aurrea hartzea azpimarratzea, berdintasunean haur-hezkuntzatik bigarren hezkuntzara arte prestatuz



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gazteekin asko lan egitea, haiengan ikusten hasi den atzerapausoa eteteko: harremanetan, sexuen arteko jarreretan, roletan, mutilek neskak kontrolatzen hastean, beren burua aldarrikatzeko, neskek mutilenak izan ohi diren rola hartzean... ▪ Immigrazioaren zenbait sektore kontu bereziarekin lantzea, haietan, matxismoa ezarriago baitago eta, horren eraginez, hemen ia gaingiduta zeuden emakumeen aurkako jarrerak, jokaerak eta askatasun-murrizketak agertzen hasi direlako
<p>3. ildo estrategikoa:</p> <p>Emakumeen erabateko integrazioa eta garapen laborala eta profesionala</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Langabezia dauden emakumeen ezaugarri buruzko informazio argia lortzea. Zer formazio-behar dituzte? Egin al liteke langabezia dauden emakumeen talde bat haiek beren beharrak eta proposamenak adosteko? Udalaren funtzioa da eskaerok SNEra helaraztea, baita Cederna Garalur moduko erakundeetara eta sindikatuetera ere, eta beharrezko prestakuntza-ikastaroak eskatzea ▪ Arreta ipintzea merkataritzari, herrian emakumeen pisu oso handia duen sektorea baita ▪ Prestakuntza eta lan ekintza-programak antolatzea, gaitasun pertsonalak eta gizartekoak garatuta, lana bilatzeko ▪ Enpresaburuak sentsibilizatzea haien enpresetan emakumeak kontratatzeari dagokionez ▪ Emakumeek lan-arloari egindako ekarpenak eta partaidetza ikertzea eta hedatzea
<p>4. ildo estrategikoa:</p> <p>Kulturaren, ezagutzaren eta informazioaren eraikuntza ez-sexista</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udalak nahikoa lan egiten du ikastetxeekin (hitzarmenean, dramatizazioan, lanbidea aukeratzeko kanpainan...). Baina, horrez, gain, Ludotekako, Gazteguneko, Udan euskarazko, kirolak eta Musika-eskolako begiraleak daude. Udalarenak diren eskumenetan, hezkidetza-plan bat egin liteke ▪ Irakasleak eta begiraleak kontratatzeke frogetan, berdintasunean prestakuntza izatea balioesteko irizpide gisa mantentzea ▪ Emakumeek Altsasun egindako ekarpenak ikusgarri egitea. Historia, kultura eta ezagutzen transmisioa
<p>5. ildo estrategikoa:</p> <p>Emakumeen hiritartasun</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gai horretan arau gehien duen udaletako bat da; ildo horrekin jarraitu ▪ Araudia edo ordenantza bat onartzea lan guztiek (inbersio-planek, garapen-planek, plan ekonomikoek,



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

osoa:
erabakiak hartzean eta
baliabideez gozatzean
erabateko parte-hartzea

industrialek...) genero-inpaktuaren txosten bat izateko (txosten espezifikoko bat plan horrek emakumeengan eta berdintasunean zer eragin izango duen azaltzeko). 2011ko maiatzean onartutako Foru Dekretuaren transposizioa

- Altsasun emakumearen **memoria historikoa berreskuratzeko sustatzen diren lan guztietan genero-irizpideak** sartzea
- **Emakumeek hainbat sektore edo alorretan bizi duten egoeraren inguruan beharrezko ikerketak** egitea
- **Emakumeen elkartze-mugimenduak sustatzea eta laguntzea, proiektuak eta ekintzak garatzeko**
- Lan-talde tematikoak bultzatzea, emakume gakoekin, batzorde irekietan eta galdeketa publikoetan esku hartzeko, edukia edozein dela ere
- Adostu eta onar al daiteke batzorde, batzar, partaidetza-talde, eta abar guztiak **parekideak izatea? Hori herritarren parte-hartzerako ordenantzan arautzea**



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B


☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

3. PLANGINTZAREN DISEINUA

2014. urtean, tokiko berdintasun-eragileak gaitzeko programaren baitan, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak bultzatutakoan, Nafarroako berdintasun-eragileek honako dokumentu hau egin eta adostu zuten: **GENERO-BERDINTASUNA NAFARROAKO TOKI ENTITATEETAN: UDALETAKO BERDINTASUN ALORRETAKO LANA PLANIFIKATU, KUDEATU ETA EBALUATZEKO IBILBIDEA ERAGINKORTASUNEZ KOMUNIKATZEKO PLANA**. NFBik eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) onartutako dokumentu horrek, aurrerantzean 'ibilbidea' deitutakoak, honako helburu hauek ditu:

- Tokiko erakundeek genero-berdintasunean esku hartzeko eredu bat diseinatzea
- Berdintasun-alorren lana sistematizatzea
- Gai horretan, tokiko erakundeen lana homogeneizatzen laguntzea, haien eragina ebaluatzeko.
- Alor horietan kalitatezko irizpideak txertatzea

Ibilbidea honela egituratzen da:





Altsasuko Udala
 Ayuntamiento de Alsasua
 I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
 FAX 948 56 38 55
 www.altsasu.net
 altsasu@altsasu.net
 ✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Jarraian, aurkeztutako proposameneko ekintzak testuinguruan ipintze aldera, berdintasun-alorren lanaren egitura aurkezten da, baita haien lan-karga gomendatua ere.

	Esku hartzeko arloak	Ildo estrategikoak	Programak	Helburuak
BERDINTASUN-ALORRA	Toki gobernandua eta genero-zeharkakotasuna % 50	1: Genero-berdintasunerako udal-egiturak	1. Genero-berdintasunerako udal alorrak eta unitateak	1. 'Zeharkakotasuna' estrategia bultzatzeko eta legitimatzeko baldintzak sortzea, berdintasun alorrak sendotzeko
		2: Prestakuntza teknikoa eta politikoa toki entitatean generoaren ikuspegi integratua txertatzeko	2. Prestakuntza espezializatua genero-ikuspegia txertatzeko	2. Teknikariak eta politikariak gaitzea, beren alorretan genero-ikuspegia txertatzeko eta helburu horretarako berdintasun alorrekin lankidetzan aritzeko
		3: Laneko udal-prozedurak emakumeen eta gizonen tratua eta aukera-berdintasunaren printzipiotik	3. Genero-ikuspegia udal-araudian, planetan eta proiektuetan	3. Arauek, planek eta proiektuek ez dietela era diskriminatzailean emakumei eta gizonei eragiten bermatzea, baita berdintasunerako eragin positiboa izatea ere
			4. Aurrekontuen plangintza eta ebaluazioa	4. Aurrekontuaren banaketa aztertzea emakumei era diskriminatzailean ez eragiteko. Ekitate handiagoa bilatzea
			5. Genero-ikuspegia txertatzea langileen kudeaketan	5. Berdintasuna sustatzea langileak aukeratzeko eta sustatzeko prozesuetan



Altsasuko Udala
 Ayuntamiento de Alsasua
 I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
 FAX 948 56 38 55
 www.altsasu.net
 altsasu@altsasu.net
 ✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

		6. Informazioaren kudeaketa eta komunikazio-politika	6. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista eta integratzailea egitea eta sustatzea
		7. Kontratazioa, diru-laguntzak eta hitzarmenak	7. Genero-ikuspegia txertatzea kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan
		8. Partaidetza eta ordezkaritza parekatuak	8. Ordezkaritza orekatuaren printzipioa txeratzea, 3/2007 Legeak zehaztu bezala
	4: Genero-berdintasuna udalaren edota eskualdearen garapen jasangarriaren parte gisa	9. Eskualdeko edo udalerriko generoaren azterketa sozioekonomikoa	9. Eskualdearen azterketan genero-ikuspegia txertatzeko baldintzak sortzea
		10. Prestakuntza eta gaikuntza tokiko berdintasunezko garapenerako	10. Laguntza ematea genero-berdintasuna garapen-agendaren parte izan dadin
		11. Genero-ikuspegia garapen-planetan eta -proiektuetan	11. Laguntza ematea garapen-estrategiak berdintasunean eragin positiboa izan dezan
		12. Emakumeen eta gizonen berdintasunezko partaidetza eskualdeko baliabide eta zerbitzuetan	12. Baliabideen eta zerbitzuen erabileran desberdinkeriak eta diskriminazioak agerian uztea, horiek zuzentzeko
	Emakumeen aurkako indarkeria	1: Emakumeen aurkako indarkeria toki entitatean	13. Udal-baliabideen arteko koordinazioa
14. Udal-langileak indarkerian gaitzea			14. Gaitzea, esku-hartze egokia ziurtatzeko. 14.(2) Agenda politikoan emakumeen aurkako indarkeria ezabatzea txertatzea



Altsasuko Udala
 Ayuntamiento de Alsasua
 I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
 FAX 948 56 38 55
 www.altasu.net
 altasu@altasu.net
 ✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

		15. Udal-baliabideak emakumeei hurbiltzea, ezagutzen dituztela eta udalerrira moldatzen direla ziurtatuz	15. Zerbitzuen eta baliabideen informaziorako eskubidea bermatzea. 15.(2) Eskualdeari egokitzea.	
		16. Indarkeria-egoeran dauden emakumeen sarbidea eta partaidetza udal-baliabide eta zerbitzuetara	16. Udal-baliabideen sarbidean indarkeria jasan duten emakumeak eta beren mendekoak kontuan izatea 16. (2) TEan emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea zeharkakoa egitea	
		2: Indarkeriarik gabeko bizitza emakumeentzat	17. Herritarrak prebenitzea eta sensibilizatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren gaian	17. Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea, gaitzespen-pedagogia eginez, elkarbizitza-eredu berriak sortuz eta balioak aldatuz
			18. Udalerriko errealitatera moldatutako txostenak eta ikerketak	18. Ezagutza- eta hausnarketa-ildo berriak sortzea
			19. Toki entitatea, programen eta proiektuen sustatzaile gisa	19. Ezagutza baliatzea, beste programa batzuk sustatzeko
Zaintza, erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna	1. Herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hauen bidez: zaintzaren etikaren garapena eta emakumeen eta gizonen bizi pertsonalaren, familiakoaren eta lanekoaren bateragarritasun erantzunkidea	20. Zaintzaren etika eta bateragarritasun erantzunkidea udalerrian	20. Baldintzak sortzea hausnartzeko eta lantzeko espazioak sustatzeko	
		21. Lan-egitasmoa zaintzaren etika eta bateragarritasun erantzunkidea sustatzeko	21. Lan-egitasmo espezifiko bat garatzea	



Altsasuko Udala
 Ayuntamiento de Alsasua
 I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
 FAX 948 56 38 55
 www.altasu.net
 altasu@altasu.net
 ✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

	2. Denboren, espazioen eta zaintzaren kudeaketa-eredu berriak toki entitatean	22. Zaintzen kudeaketa udal-praktikan	22. Udal-baliabideak eta -zerbitzuak garatzea eta moldatzea
		23. Ekintza berritzaileak	23. Berritzeko aukera ematen duten esperientziak garatzea
Emakumeen ahalduntzea, haien partaidetza soziopolitiko eta balio-aldaketa	1. Emakumeen erabateko hiritartasuna, ahalduntzearen bidez	24. Emakumeen ahalduntze pertsonala	24. Bideak sortzea emakumeek beren autoestimua, autonomia, eskubideak izateko kontzientzia konpontzeko eta garatzeko, haien izaera eta munduan egoteko era legitimatze aldera
		25. Emakumeen talde- eta genero-ahalduntzea	25. Bideak sortzea emakumeek udalerrian bizi duten egoera hobetzeko
		26. Emakumeen ahalduntzea eta haien gizarte- eta politika-partaidetza	26. Mugimendu asozitiboa eta feminista bultzatzea. 26. (2) Inguru publikoetan emakumeen partaidetza handiagotzea
	2. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren gizarte-balioa, gizarte-balio patriarka eraldatuz	27. Pertsonen sexuaren arabera esleitutako genero-estereotipoak eta rolak	27. Balio-aldaketa sustatzea eta genero-estereotipoak ezabatzea



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

4. HERRITARREK PROPOSAMENEAN ESKU HARTZEKO PROZESUA

2015eko urritik, emakumearen eta berdintasunaren batzordea 2016-2019 Berdintasunerako Udalaren Jarduera-plana egiten ibili da. Hainbat bilkuraren ostean eta behin edukiak adostuta, 2016ko ekainaren 15eko emakumearen eta berdintasunaren batzordean erabaki zen, udalbatzak plana onartu aurretik, partaidetza-prozesu bat irekitzea.

4 partaidetza-talde deitu ziren eta honako prozesu hau egin zen:

1. Udaleko teknikariak
2. Altsasun lan egiten duten entitateak
3. Emakumeen taldeak
4. Herritarrak oro har

TEKNIKARIEN ETA ENTITATEEN DEIALDIA:

- Ekainak 6: partaidetza-prozesua abian jarri behar zela esateko posta elektronikoa bidali zen.
- Ekainak 8: bilkura-deialdia bidali zen, planaren ildo orokorrak zituen artxibo batekin batera. Udal-teknikarien kasuan, jarduketa-eremua jakinarazi zitzaien, udal-administrazioan genero-zeharkakotasunari dagokionez.
- Ekainak 16: 11:30tan, bilkura teknikariek eta 13:00etan, Altsasun lan egiten duten erakundeekin.
- Ekainak 21: udalaren webgunean, planaren zirriborroa eskegi zen.
- Ekainak 22: beste helbide elektroniko bat bidali zen, plana zuen estekaren eta ekarpenak egiteko epearen berri emateko.
- Uztailak 8: ekarpenak egiteko epea amaitu zen. Posta elektroniko bidez egin ziren, honako helbide honen bidez: berdintasuna@altsasu.net

HERRITARREN DEIALDIA

- Ekainak 15: GUAIXEri prozesuaren berri eman zitzaion, zabal zezan.
- Ekainak 30: prentsa-oharra bidali zitzaion gainerako hedabideei.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

- Ekainak 22: Prozesuaren berri emateko bandoa
- Ekainak 27, 17:00etan: berri jaso nahi zuten pertsona guztiak Gure Etxeako 1. solairuan biltzera deitu ziren.

EMAKUMEEN TALDEEN DEIALDIA:

- Ekainak 16: posta elektronikoko bat bidali zitzaion, honako hauek azaltzeko:
 - o Prozesua.
 - o Noiz eskegiko ziren Planaren zirriborroa eta ppt-a webgunean.
 - o Proposamenen epea.
- Bilerak talde feministekin.

Partaidetza-prozesu horretan, honako ekarpen hauek bildu dira:

Jatorria	Ekarpena	Proposamena
Udaleko teknikarien taldea	Egindako lana udaleko alor guztietan aplikatu, eta denboran bermatu eta jasagarria izan behar da	Berdintasun-plana garatzeko irizpide gisa onartzen da ekarpen hori, administrazioko jarduna prozeduren edo jarraibideen bidez araututa egon dadin
UGT Altsasuko batasuna sindikatuaren eskualdeko	1. Lantegiak egitea honako hauetarako: Ahalduntzea Motibazioa eta autoestimua Lana aktiboki bilatzea 2. Eskualdean eskatzen den prestakuntza gehiago: janaria prestatzea, elikagaien	1. Aurreikusi bezala, ekarpen hori 21. neurrian onartzen da, emakumeen ahalduntzea sustatzeko programaren baitan Lantegiak zehaztea 2016ko bigarren sei hilekorako proposatzen da 2. Udalak ez du herritarren lan-prestakuntzarako eskumenik



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

	<p>manipulatzaila, soldadura...</p> <p>3. Kolektiboak berdintasunean sentsibilizatzea: gazteak, gizarte-zerbitzuak, immigrazioa... Hitzaldiak, mahai-inguruak, lantegiak, lehiaketak, aitorpenak (zigiluak)...</p> <p>4. Berdintasun-plana tokiko hedabideetan hedatzea</p> <p>5. Berdintasun-neurriak Sakanako enpresekin batera</p> <p>6. Helburuak betetzen direlako adierazleak</p>	<p>Hala ere, prestakuntza hori sustatzeko ardura hartzen du, eskumen eta funtzio hori duten entitateen bidez</p> <p>3. Sentsibilizazioa 17., 18., 21. eta 23. neurrietan barne hartzen da.</p> <p>4. Ekarpen hori onartu, udalaren jardun-irizpide iraunkor gisa plana garatzean</p> <p>5. Ekarpen hori 23. neurriaren parte gisa onartzea, udaleko berdintasun-zerbitzuari erreferentzia gisa, gai horretan udalerriko entitate eta erakunde guztien aholkularia baita</p> <p>6. Neurri bakoitzaren fitxetan onartzen dira jada</p>
<p>Talde feministak</p>	<p>Emakumeen ahalduntzeari dagokion programa ahal beste indartzea</p> <p>Kontrol-prozedura bat egitea, udaleko alor guztiek plana eta hartzen diren erabakiak bete ditzaten</p>	<p>Urteko programazioetan garatuko den 21. neurrian onartzen da</p> <p>Udalaren jardun-irizpide gisa planteatzen da eta prozedura 11. neurrian biltzen da</p>



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

The screenshot shows a web browser window displaying the website of the Ayuntamiento de Alsasua. The page title is "Ayuntamiento de Alsasua" and the date is "18 de julio de 2016". The main content area features a news article titled "PLAN DE IGUALDAD 2016-2019: PROCESO PARTICIPATIVO". The article text states: "La Comisión de Mujer e Igualdad ha elaborado y consensuado un plan de actuación en materia de igualdad entre mujeres y hombres 2016-2019. Antes de ser aprobado por el Pleno, se somete dicho plan a participación pública. Las propuestas se enviarán antes del 8 de julio del 2016 a berdintasuna@altsasu.net". Below the text, there are links for "ABIAPUNTUA_PUNTO DE PARTIDA", "LEGEALDIKO JARDUKETA_ACTUACIÓN LEGISLATURA", and "PARTE HARTZE PROZESUA_PROCESO PARTICIPATIVO". The website footer includes contact information: "García Ximénez 36 c.p. 31800 Alsasua (NAVARRA) Tel. 948 56 21 61 Fax. 948 56 38 55 altsasu@altsasu.net".



2016-6-17 GUDARCE

sakanerria 7

Altsasu

Udalaren Berdintasun Plana parte-hartze prozesuaren bidez osatuko da

Astelehenetik aurrera planaren zirrriborroa www.alsasua.net web orrian izanen da. Ekarpenak garilarren 8ra arte egin daitezke berdintasuna@alsasua.net e-postaren bidez.

Altsasuko Udalaren Emakumearen eta Berdintasun Batzordeak 2016-2019 aldirako emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako jardueren planaren zirrriborroa adostu du. Baina altsasuarren ekarpenekin aberasatu nahi du. Horregatik, gaur hasi eta garilarren 8ra bitartean parte hartze prozesua martxan jarri du. Batzordearen asmoa da jasotako ekarpenak planari gehitzea, garriko udal bilkuran onartu eta udazkenerako plana indarrean egon dadin.

Batzordeak ekarpenak jasotzeko lau talderengana joko du, hain zirrriborroa eman, bilera, egin eta ekarpenak jasotzeko. Lehenik, udal bertako eta bere menpeko erakundeko teknikariek inbiduko dira. Bigarrenik, Altsasun lan egiten duten taldeekin. Emakumeen arloan lan egiten duten taldeen iritzia kontuan izanen dute ere. Azkenik, edozein altsasuarrek bere ekarpena egingeko aukera izanen du. Planari buruzko informazio gehiago nahi duenak asteartean, 11:00etan, edo hilaren 27an, astelehenean, 17:00etan, berdintasun teknikariak Gure Etxea erailkineko, solairuan dute bulegotik pasa daitezke.

Idoak
 Nafarroako berdintasun teknikariek, Nafarroako Gobernuaren Berdintasunerako Institutuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak udal taldeko berdintasun planak egiteko 2014an adostutako planingintzan oinarrituta dago Altsasun onartutako zirrriborroa. Berdintasuna lortzeko bestelako estrategia zehatu dituzte. Lehenik, etxeratik begira jarri dira: emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna udal administrazioan zehar lerroa izanen da. Bigarrenik, Emakumeenganak indarkeriarren kontrako prebentzioa eta ezabatzea lan eginen da. Horrekin batera, emakumezkoen arloan guztiz integratzeko eta garatzeko



Batzordeko kideak, bilduta. Eragile ezberdinen ekarpenekin osatu nahi dute Udalaren Berdintasun Plana.

ildoak zehaztu da. Baita ezagutzaren eta informazioaren kultura ez sexistatzen erailkuntzaren ere. Azkenik, emakumezkoen hiritasun osoa bermatzeko erabakigintzetan egotea eta ballabideak erabiltzea sustatuko dute.

Udal barrura begira, bestek beste, aurreikusten diren jardueretakoak dira: Berdintasunerako Lantaldia sortzea, talde politikoekin urtero bilan saioa egitea, genero ikuspegia udal sailetan zein egoeratan dagoen aztertzea, diagnostia egitea, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako ordenantza onartzea edo garapen arloan genero ikuspegia txertatzea. Indarkeria sexistaren kontrako hainbat neurri jaso dira zirrriborroan: emakumeenganak indarkeriarren kontrako koordinazio taldea sortzea, indarkeria

Planaren osaketan parte hartuko duten udal teknikariak

